

URTARRILA - OTSAILA - MARTXOA

2. HIRUHILEKO

PROGRAMA



lotune

2025/2026

AURKEZPENA:

Lotune Mutrikuko herritarrak feminismoan formatzeko eta saretzeko espazioa da.

Desikasi, ikasi, eztabaidatu, kontzientziatu, elkar ezagutu, babestu, gozatu, zalantzan jarri eta eredu berriak sortzeko espazioa da. Mutriku anitz eta parekidea eraikitzen jarraitzeko topagune bat.

ORAINGOAN ERE ESKAINTZA ZABALA IZANGO DA:

EMAKUMEENTZAKO* JABEKUNTZA ESKOLA

Jarduera hauek soilik emakumeentzat* dira: elkarrekin egon, errealitateak konpartitu, teoria feministan formatu, aliantzak sortu eta elkarrekin ahalduentzeko baliabideak eskainiko dira.

Emakumeak* izartxoarekin: genero-sistemak ezarritako dikotomiez gain bizipen, errealitate, gorputz eta identitateak anitzak direla ikusarazteko (bollera, trans, ez-bitar...).

FEMINISMOA GUZTION KONTU

Jarduera hauek herritar guztiontzat dira. Ikuspegi feminista bermatuz, erakusketak, liburuen aurkezpenak, hitzaldiak, dokumentalak... eskainiko dira.

GIZONAK FEMINISMORANTZ

Jarduera hauek gizonentzat izango dira, feminismoa eta gizarte anitz baten aldeko borroka ez baitira soilik emakumeen ardura. Zer diote herriko gizonak? Nola egin nahi dute parekidetasunaren alde?

EMAKUME- ENTZAKO* JABEKUNZA ESKOLA

Jarduera hauek soilik emakumeentzat* dira: elkarrekin egon, errealitateak konpartitu, teoria feministan formatu, aliantzak sortu eta elkarrekin ahalduntzeko baliabideak eskainiko dira.

IKASTAROA FITOGINEKOLOGIA

Otsailak 11 eta 18

18:00-20:00 · Luardo

Dinamizatzailea: Sorginbedar

Oihane Lekunberri Ansola

Ikastaro hauen helburua emakumeen bizitzako faseak ezagutzea izango da. Fase bakoitzean sendabelarrek nola erabitzen diren ikasiko dugu.

Egon daitezkeen desorekak tratatzeko sendabelarrak nola erabili ditzakegun eta hauekin obulu naturalak, olioak, lurrun haginak, enplastuak, etab. egiten ikasiko dute partaideek.

Ikastaro hauen helburuak, autoezagutza eta autozaintza dira. Hauetan ikasitakotik abiatuz, etxean praktikan jartzeko tresnak izango dituzte parte hartzaileek.

**Izen ematea otsailaren 4a baino lehenago*

IKASTAROA DANTZA AFRIKARRAK

Martxoak 5, 12, 19 eta 26

18:00-20:00 · Anbulatorio zaharra

Dinamizatzailea: Carine Lukubama Souza

eta Quinndy Akeju

Afrosesion izeneko ikastaroan, Afrikako kulturak ezagututa dantzatzea sustatzen da, besteak beste, ndomboloa eta afrobeat-a.

Saio bakoitzean emango den estiloaren eta jatorriaren azalpen zehatza emango da, dantza praktika eskaintzeaz gain, bere testuinguru kulturalaren ulermen sakonagoa eta errespetuzkoagoa eskaintzeko.

**Izen ematea otsailaren 26a baino lehenago.*

FEMINISMOA GUZTION KONTU

Jarduera hauek herritar guztientzat dira. Ikuspegi feminista bermatuz, erakusketak, liburuen aurkezpenak, hitzaldiak, dokumentalak... eskainiko dira.

HITZALDIA (MIN)BIZIA ETA BIZIA

Otsailak 4
18:00-19:30 · Zabel kultur etxea
Hizlaria: Izan Iñurri

Gure ahotsak minbiziaren bizipena garden eta taburik gabe aldarrikatzen du.

Bizitza duhin baterako eskubidea dugulako, besteak beste, osasun mental eta psikologikoa, sexualitatea, gaixotasunen dimentsio sozial eta ekonomikoak eta zaintza-sare egonkor baten garrantzia aztertuko ditugu hitzaldi honetan.

LITERATURA KONTZIENTZIA FEMINISTAREN HAZIAK-1

Otsailak 26
18:00-20:00 · Zabel kultur etxea
Iratxe Retolazarekin hausnarketa

Harreman eta komunitate justuagoen eta feministagoen bidean, lehen urratsa kontzientzia feministaren harra gugan hazten joatea da, askotariko esperientziek biziarek deitzenak.

Formazio-saio honetan kontzientzia feministan arakatzeko Bell Hooks-en "Feminismoa denon kontua da" (Katakarak, 2018) liburua izango dugu gogoetagai. Feminismoari buruzko gogoeta egitean, hainbat ardatz landu ditu Bell Hooks-ek liburuan (ahizpatasuna, heziketa, klase-borroka, geure gorputzak, lana, arraza...).

Pentsalari afroamerikarrak garaturiko hausnarketa horiek Euskal Herriratzeko eta geure esperientziara ekartzeko hariak josiko ditugu saio honetan.

**sarrerak salgai mutriku.eus edo turismo bulegoan urriaren 10etik aurrera: 3€*

ANTZERKIA IZEBA TXIRRITA. MEMORIA, FEMINISMOA, TRANSMISIOA Martxoak 6 19:00-20:00 · Zabel kultur etxea

Oroitzapenen eta hitzen bidez garatuko den istorioa da OROHITZ. Protagonistaren hitzak eta oroitzapenak izango dira ikuskizunean zehar bidaiaatzeko garraio eta bideak.

Amonabiloben arteko harremanaren bidez bi gai jorratuko ditu ikuskizunak bereziki: azken mendeko historia mundiala eta Euskal Herriko erreferenteak.

Amona Martiren bizipenetan oinarritutako kontakizunen bitartez bere bizitzan zehar jazotako hainbat gertakizun historiko eta ezagututako euskal erreferente ezagutuko dugu.

Sarrerak salgai mutriku.eus edo turismo bulegoan otsailaren 19tik aurrera: 3€

GIZONAK FEMI NISMO RANTZ

Jarduera hauek gizonentzat izango dira, feminismoa eta gizarte anitz baten aldeko borroka ez baitira soilik emakumeen* ardura. Zer diote herriko gizonak? Nola egin nahi dute berdintasunaren alde?

IKASTAROA MUTRIKUKO GIZONEN FOROA

Urtarrilak 13

Otsailak 3

Martxoak 3


18:00-20:30 · Zabel kultur etxea

Dinamizatzailea: Egoitz Arbiol (Hiruki Larroxa)

Kuadrillako jarrerak, indarkeria matxistak, homofobiak, pribilegioak, ezintasun emozionalak, aitatasunak, harreman afektiboak, gatazkak kudeatzeko ezintasunak, hazkuntzak... kezkatzen zaituzte?

Foro hau, gai hauetaz hitz egiteko lekua izatea nahi dugu, eta baita zuk ekartzen duzun gaiaz hitz egin ere. Gizonentzako foro honek, bizi dugun testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoak sortutako ezinegon eta galderak zabaldu nahi ditu, elkarrekin pentsatu, elkarbanatu eta sortzeko. Gizontasuna ez duzu zuk zeure bakardadean eraikitzen; kontrara, besteekiko harremanean eta testuinguru zehatzetan garatzen dugu gure nortasuna. Hortaz, behatu, hausnartu, elkarbanatu eta ekin diezaiogun elkarrekin.

Ongi etorri Mutrikuko gizonen forora.



IX. BILERA IREKIA:

Urtarrilak 27

18:30 · Luardon

Bilera hauek hiruhileko bakoitzaren hasieran egin ohi ditugu. Bertan, Lotuneko jardueren balorazioa egiteaz gain, proposamenak, interesak eta premiak elkar banatzen ditugu. Hala, hurrengo hiruhilekoetarako nahiak identifikatu eta martxan jartzeko.

Zatoz zure ikuspegia konpartitzera!

EGUTEGI OROKORRA:

01

URTARRILA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
			01	02	03	04
05	06	07	08	09	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

02

OTSAILA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
						01
02	03	04	05	06	07	08
09	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

03

MARTXOA

AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
						01
02	03	04	05	06	07	08
09	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					



IKASTAROETAN IZENA EMATEKO:

berdintasuna@mutriku.eus
679 162 507 (07:30-14:30)



HAURTZAINDEGI ZERBITZUA:

Premia izanez gero, jakinarazi 7 egun lehenago helbide honetara:
berdintasuna@mutriku.eus

*Eraiki dezagun Mutriku anitz
eta parekide bat!*



Mutrikuko Udala



**PARA VER EL PROGRAMA
EN CASTELLANO**
LABUR.EUS/LOTUNE25-26